

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

568

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da 2021. urtean zein diru-kopuru eta nori eman zaion Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen zen, 2021. urtean honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-eman-tzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bazen.

Kontuan hartu da Gazteriako zuzendariaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dela, horixe xedatzen baitu 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren 17.4 artikulua.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren babesean 2021. urtean onartu diren dirulaguntzen eta onuradunen zerrenda argitaratzea. Eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 24a.

Gazteriako zuzendaria,
AGURTZANE LLANO CUADRADO.

ERANSKINA

Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
Azpeitiko Udala	Azpeitiko etxebizitza diagnostiko eta plana	17.666,00
Bilboko Udala	Elaboracion del Plan Joven Bilbao Hiri Gaztea 2021-2024 mediante una metodologia participada	60.000,00
Donostiako Udala	Etxebizitza kolaboratiboak. Elkarrekin bizitzeko eredu feministak topaketa antolatzea	3.500,00
Durangoko Udala	Elaboración estudio diagnóstico	8.954,00
Durangoko Udala	Diagnóstico y propuestas dirigidas a la empleabilidad del alumnado del instituto municipal de FPB de Durango	1.452,00
Elgoibarko Udala	Elgoibarko gazteen emantzipazio eskariei eta premiei buruko diagnosis	17.303,00
Etxebarriko Udala	Programa Gazte Foroak	2.500,00
Leioako Udala	Gazte kultura Leioa. Diseño, organización, dinamización y sistematización del proceso estratégico.	17.182,00
Lekeitioko Udala	Gazteen emantzipaziorako diagnostikoa eta plana egitea	17.545,00
Ondarroako Udala	Ondarroako gazteen emantzipaziorako aukerak, baldintzak eta ezaugarriak ezagutzeko azterlana egitea	13.279,75